

AURKEZPENA

Gu Izaskun, Ane, Mirari, Aitziber eta Laura gara, “AlokaPro” proiektuaren sortzaileak. Irakasleen profil desberdinak aurkitzen dituzten aplikazio bat sortzea erabaki dugu non errazten dugun irakasle partikular bat kontratatzeko aukera.

Lan munduan sartzea bilatzen duten gazteentzat zuzenduta dago, baita, irakasle partikular bat behar duten pertsonentzat. Gaur egun, Euskal Herrian zehar kokatuta gaude baina gure etorkizuneko ideia Espainia osotik gure enpresa zabaltzea da. Gainera, gure enpresaren kalitatea bermatzen dugu elkarrizketa pertsonalen bidez. Negozio hau garatzeko ideia izan genuen ikusi genuelako familia ugari irakasleak behar dituztela haien seme-alabentzako ikastetxetik kanpo. Horrez gain, lan egin nahi duten gazteek, lan egin ahal izango dute “irakasle” moduan, dirua lortzeko.

